



## NAHIKO 2007-09 IKASLEEKIN SAIO BEREZIAK.

### 4UD: LANBIDEAK. SAIO BEREZIA (2008ko urria-azaroa)

#### 1. HELBURUAK ETA EDUKIAK

Hirugarren unitate didaktikoan landu dituzten lanbidei buruzko kontzeptuak jolasaren bidez gogoratu, biziara eta hausnartzeko bidea eman. Irakaslearen gidan jasotzen den bezala:

Laugarren unitate didaktikoak, aurrekoan landu genuen **Berdintasunaren Okaren** alderdi berri bat lantzen du. **Berdintasunaren Okak** gure ikasleentzako aukera berdintasunean oinarritutako ezinbesteko hezkuntza-bidearen proposamena irudikatzen du, bai neskentzako eta bai mutilentzako. Bide hau Giza- eskubideen aplikazioan oinarritzen da, emakume nahiz gizonei, arlo pribatu nahiz publikoan. Helburua neskak nahiz mutilak pertsona autonomoak izatea da eta, norberaren aukera indibidualen arabera, bakoitzak bere burua bizitzaren alor guztietan garatzea. Horretarako, neskek eta mutilek bere sexuari ezarritako genero estereotipoek eragindako muga sozialak ezagutu eta gainditu behar dituzte, bigarren unitate didaktikoan **Mutilen Oka** (oka urdina) eta **Nesken Okaren** (oka arrosa) bitartez irudikatu genituenak.

Lehenengo eta bigarren unitateetan, **Berdintasunaren Okaren** honako bi ezinbesteko eta oinarritzeko alor edo alderdiak landu genituen: **zainketa** (familiarra) eta **aniztasuna** (indibiduala). Berdintasun eta justizia gehiago egongo den beste mundu bat posible izateko, puntu grisak baino puntu berde gehiago dituen mundu bat lortzeko, beharrezkoa da emakumeek eta gizonek egunerokotasunean bi alderdi hauen ardura hartzea. Laugarren unitate didaktikoak **Berdintasunaren Okaren** funtsezko beste alderdi bat sakontzen du: lana, lan ordaindua, enplegua.

**Lana, ordaindua edo ez, emakume eta gizonen jarduerarik beharrezko eta nagusienetakoa da gure gizartean. Indibidualki nahiz kolektiboki behar diren zainketak, zerbitzuak, produktu eta errekursoak emateaz gain, pertsona bakoitzaren izaera eta bizimodua eratzeko, eta baita pertsona bakoitzak familian eta gizartean dituen rola eta estatusa ere.**

Gure gizartean, ordain ekonomikoa duten lanak daude, ordaintzen diren lanak, eta **enplegua** deitzen ohi ditugu. Beste lan batzuk ez dute gure gizartean ordain ekonomikorik, ez dira ordaintzen. Enplegu gehienak produkzioaren alor publikoan egiten dira, hau tradizionalki gizonei egokitu zaien alorra delarik. Ordainduak ez diren lanak ordea, etxeko alor pribatuan egiten dira, tradizionalki emakumei egokitu zaien alorrean. Hori dela-eta, bi lan mota hauei, ordaindua eta ez ordaindua, lan produktibo eta erreproduktiboa deitzen zaie, hurrenez hurren.

"Lana" terminoaren ohiko erabilera soziala, ("lanean zaude?, zertan egiten duzu lan?, zein lana duzu?") lan ordainduari dagokio, enpleguari. Orokorrean ordea, ordaindu gabeko lana egiten duten pertsonetaz, zainketa familiarren lan erreproduktiboa arduratzen direnetaz, ez dutela lanik egiten esaten da ("lan egiteari utzi diot nire semearekin egoteko"). Erabilera hau genero rol eta estereotipoetatik dator (zainketa lanik gabeko oka urdina eta lan ordaindurik gabeko oka arrosa) eta **lanaren banaketa sexualak** eragindako aurreiritzi eta diskriminazioak transmititzen ditu. Banaketa honek, zentzu erradikalenean, emakumeek ordaindu gabeko lanaren munduan (familiarra) jarraitzea eta gizonek enpleguaren munduan (laborala) jarraitzea defendatzen du.

**Gaur egun, gure gizartearen** baldintza sozio-ekonomikoak kontuan hartuta, genero eredu hauek ñabardura eta zehaztasun berriak dituzte: emakumeek enplegua izan dezakete (eta baita behar izan ere) baina soilik era osagarrian eta haien lanik nagusia izango litzatekeen ordaindu gabeko lana egiten



jarraitzen uzten dien bitartean. Hau da, enplegua Emakumeen Okan sartu egin da (oka arrosa) baina ez Gizonen Okaren modu berdinean, ezta baldintza berdinetan ere. Teorikoki eta legalki emakumeek nahiz gizonek edozein lanetara sartu ahal badira ere, praktikan datuek **emakumeentzako lanak eta gizonentzako lanak** daudela erakusten digute, bai edukian zein lan-baldintzetan. Adibidez, gure gizartean ondorengo egiazta dezakegu:

- Emakumeek zerbitzu sektoreko pertsonen zainketaekin zerikusia duten enplegu gehienak egiten dituzte: laguntza, garbiketa, elikadura, zainketa, arreta, antolaketa, osasuna, heziketa, etab. Gizonak oro har, ez dira lanbide eta enplegu hauetan aritzen.
- Emakumeek lanaldi partzialeko kontratu gehienak dituzte, eta ordainsari eta prestigio gutxiagoko enplegu gehienak. Izan ere, lanbide eta enpleguek sozialki balioa galtzen dute hauetan gehiengo emakumeak direnean. Tradizionalki emakumeek egindako lanek ordea, balio handiagoa hartzen dute gizonek egiten dituztenean.
- Bizitza laborala eta familiarren arteko kontziliazio neurri deituriko gehienak emakumeek erabiltzen dituzte: lanaldi murrizketak, eszedentziak, etab. Gizonek -gehienetan- ostera, pertsona modu partzial eta aldi baterako lan mundutik ateratzen duten eta bere ibilbide profesionala ahuldu dezaketen neurri hauek sahiesten dituzte.
- Emakumeek ordaindu gabeko lan familiarra egiten jarraitzen dute, horrek suposatzen dituen ardura eta zereginen gainkargekin (lanaldi bikoitza deiturikoa) eta beren enpleguetan dakartzkien zailtasun eta murrizketekin (mugikortasun eta prestutasunean zailtasun eta murrizketak). Orokorrean, gizonek ez dute modu esanguratsu batean handitu ordaindu gabeko lan erreproduktiboari emandako denbora. Alegia, zainketa ez da oraindik Gizonen Okan sartu.

**Errealitate honek desabantail eta diskriminazioak sortzen ditu emakumeentzat alor laboralean eta ondorioz, haien autonomia pertsonal, bizitza-proiektu eta bikote-harreman eta familiarretan, hauetan tratatu txarren arriskua handituz.**

**Gure gizartean enplegua ezinbestekoa da bizitzeko, erabat beharrezkoa da pertsonen autonomia eta bizitzarako. Horregatik da Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalean jasotako oinarritzko eskubideetako bat. Gure egungo gizartean enplegurik gabe ez dago autonomia ekonomikorik eta autonomia ekonomikorik gabe ezin da autonomia pertsonala izan. Emakume eta gizonek enplegua, lan ordaindua, behar dute izan bizitza-proiektuak (familiarrak eta profesionalak) autonomiaz eta aukera berdintasunez garatu ahal izateko, dependentziarik gabe eta ezberdintasun harremanik gabe.**

Berdintasun Okak **ordaindu gabeko lana** kontuan hartu eta balioa ematen dio, eta pertsona guztiek, emakumeek eta gizonek, pertsona, bikote, familia eta oro har, gizarterako ezinbestekoa den lan hau ikasi eta egin behar dutela azpimarratzen du. Zentzu honetan, arlo hau gure ikasle mutilekin landu behar dugu bereziki, zeren eta, ikusi dugun bezala, dituzten eredu sozial gehienek ez baitute balio hau kontuan hartzen.

Berdintasun Okak **ordaindutako lana**, enplegua, kontuan hartu eta balioa ematen dio, eta pertsona guztiek, emakumeek eta gizonek, pertsona, bikote, familia eta oro har, gizarterako ezinbestekoa den lan hau ikasi eta egin behar dutela azpimarratzen du. Zentzu honetan, gure ikasle neskekin bereziki beren bizitzaren funtsean enpleguak duen garrantzia landu behar dugu, dituzten eredu sozial gehienek ez baitute balio hau kontuan hartzen edo egitekotan, desabantail eta diskriminazio handiekin egiten dute, ikusi dugun bezala.

**Nahiko Programak (Berdintasun Okak) neskek eta mutilek bi lan mota hauek baloratu, ikasi eta egin ditzatela proposatzen du. Biak beharrezkoak dira gure mundua (bikoteak, familiak, gizartea...) funtzionatzeko. Gure ongizatea, gure ondasunak, bi lan moten ondorioa da. Bi lan hauek ezinbestekoak dira neskek eta mutilak pertsona autonomoak izatera iristeko, osotasunez garatuak eta bere inguruarekin harreman egokiak izango dituenak (nork bere buruarekin, bere bikotearekin, familiarekin, lagunekin, inguru sozial eta naturalarekin tratatu onak).**

**Egiten dugun lanak, ordainduak eta ez ordainduak**, pertsona bezala definitzen gaitu (aukera eta muga batzuk ezartzen ditu gure bizitzan) eta gure inguru sozialean kokatzen gaitu (bikotean, familian, lagunartean, udalerrian... leku eta funtzio bat ematen digu).

Kontzeptu eta eduki hauek lantzeko, laugarren unitate didaktikoa lanbide ezberdinen sorta anitza jasotzen du, ondorengo helburuekin:

- **Gure gizartean enplegua izatea aukera bat ez dela ulertzea**, pertsona guztien bizitza eta autonomiarako beharrezkoa den zerbait baizik, emakume eta gizon bakoitzarentzako ezinbesteko eta utziezina den giza eskubidea.
- **Enplegu bat aukeratu ahal eta behar dutela**, bere ezaugarri indibidualak hobekien egokitzen dena, edukiarengatik edo baldintza laboralengatik egin nahi dutena.
- Neskek, kolektibo bezala eta neskek izateagatik, **ez direla enplegu batzuetarako aurrez prestatuta jaiotzen**, ezta mutilak beste batzuetarako mutilak izateagatik ere.
- **Enplegu eta lanbide guztiak emakume nahiz gizonentzako** aurreikusitako eta izendatzea. Gure neskek zein mutilek horiek denak aukera posible bezala ikustea etorkizunean.
- Gaur egun izatez, praktikan, **emakumeentzako eta gizonentzako enpleguak** daudela hausnartu eta ulertzea eta aurreiritzi hauek nola gainditu daitezkeen aztertzea.
- **Ikasi eta trebatzen badira, neskek zein mutilek edozien enplegu egin** eta izan dezaketela, guztiz pertsonalak ez diren bestelako mugarik gabe.
- **Enpleguen zereginak gaitasun batzuekin lotzen direla eta hauek ez direla pertsonen sexuaren arabekoak** (beren sexua dela-eta partaide diren kolektiboarenak), baizik eta ikasketa, heziketa, prestaketa eta ezaugarri indibidualen arabekoak, batez ere.
- Emakume eta gizonentzako enplegua berdintasunean posible dela soilik **emakume eta gizonen ordaindu gabeko lan familiarren erantzukizuna hartzen badute** eta antzeko denbora eta dedikazioa eskaintzen badiote.

## 2. SAIO BEREZIA: LAN-TRESNEN TAILERRA

Jolasen bidez, aurreko guztiarekin lotuz, arlo zehatz hauetan zentratuko da saio berezia:

- Lan esparru ezberdineko 20 lanbide, 4.UDko jolasetan ezagutu dituztenak.
- Horietako 20 lanbide bakoitzeko, 4 lan-tresna.
- 4 lan-tresna horien lortzeko jolas edo froga bana.
- 4 jolas edo froga horietako bakoitzak edozein lana egiteko beharrezko den trebetasun (trebetasun-familia) bat adieraziko du.

LANBIDE BAKOITZAK 4 LAN-TRESNA → 4 FROGA → LAN TREBETASUN-FAMILIA			
TREBETASUN OROKORRA	TREBETASUN ZEHATZAK, GAITASUNAK ("Laukoteak" karta jolasean ikusi dituztenak)	LAN-TRESNA LORTZEKO FROGA	
<b>LANBIDEAREN IKASKETAK EGITEA</b> → <a href="#">IKASI</a>	Beharrezko ikasketak egitea. Lan horretarako prestatzea. Zaintzen jakitea. Kontuak egiten ikastea. Hizkuntzak jakitea. Ikasketa luzeak egitea. Ondo idazten jakitea. Gaiari buruz jakitea.	Indarra edukitzea. Azkarra izatea. Abenturak maitatzea. Asko bidaiatzea. Etxe-etxe ibiltzea. Memoria ona izatea.	<b>Elektrizitatea (nola egin ikasi behar da):</b> - Luzagailua egitea, frogatzea eta desegitea: bi muturreko eta kablea). - Argi zirkuito txikia montatu, probatu eta desmontatu: pila, entxufea, bonbila.
<b>LAN-TRESNAK ONDO ERABILTzea</b> → <a href="#">TREBATU</a>	Makinak ondo erabiltzea. Akatsik ez egitea. Makinen programa guztiak ezagutzea. Ordenagailuak ondo erabiltzea. Esku-lanetan trebea izatea. Material ezberdinak ezagutu eta erabiltzea. Gorputzaldi ona izatea. Trebea izatea.	Segurtasun neurriak jartzea. Istripuak saihestea. Higienea eta osasuna ondo zaintzea. Erreflexu onak izatea. Mugimendu koordinazio ona. Zuhertasunez lan egitea.	<b>Arotztegia (tresnekin kontu eduki behar da):</b> iltzeak, mailua... - Kutxa bat egin eta desegin (?) - Marrazki edo figura geometriko bat egin behar da (ikasle bakoitzak zati bat).
<b>MODU EGOKIAN LAN EGITEA</b> → <a href="#">KALITATEA</a>	Ahaleginak egitea. Taldean lana egitea. Jendeari laguntzea. Agintzen jakitea. Erabakiak hartzea. Erabakiak hartzea. Gauzak erabakitzea. Jendearen ardura izatea. Arretaz lan egitea. Lana ondo egitea. Nork bere buruan konfiantza izatea. Lana ondo bukatzea. Lanaz arduratzea. Lan bikaina egiteko, lan asko egitea. Lasaitasunez jokatzeta.	Originala izatea. Justua izatea. Ordenatua izatea. Oso arduratsua izatea. Asko entseatzea.	<b>Mekanika tailerra (arretaz, ordenez, lasaitasunez egin behar da):</b> montaia eta desmontaia. - Mekano bat, kotxe txiki bat, motor txiki bat.. dena askatu eta berriro lotu,
<b>JENDEAREKIN ONDO KOMUNIKATzea</b> → <a href="#">PERTSONAK</a>	Jendearekin edukatua izatea. Jendearekin atsegina izatea. Ondo hitz egitea. Entzuten jakitea.	Jendea ez engainatu. Besteen beharrak ezagutu. Hanka-sartzeak onartzea. Besteen azalean jartzea.	<b>Ordenagailua (nahi edo behar dena esanez idatzi eta irakurri behar da):</b> - Egoera ezberdinetan zer eta nola esan-idatziko luketen: bezeroari, lankideari, lantaldeburuari, probedoreari, ikasleei, gaixoari...

**Neska eta mutilak**, hasieran (aurkezpena) eta bukaeran (ondorioak) elkarrekin arituko dira, baina saioaren zatirik luzeenean (lan-tresna tailerra bera) talde segregatuetan arituko dira, 1.UD (zainketa) eta 2.UDko (aniztasuna) saio berezietan bezala.

**Helburua** neskak eta mutilak lasaiago egotea da. Egongo diren jolas edo frogak "gizonen mundukoak" edo "oka urdinekoak" izango direnez, mutilen nagusitasuna eta trufak sahiestu nahi ditugu, neskei lasai eta konfiantzaz ausartzeko eta trebatzeko denbora eta espazioa eman nahi diegu.

Horretarako **bi gela** eskatu ditugu eskoletan. Banandu aurretik, bigarren zatiko taldekako lana bukatzeko eta berriro denok elkartzeko ordua adostu behar da. Gero, berriro elkartu eta hirugarren zatia talde osoarekin egingo dugu.

HIRU ZATI		
Sarrera (denok elkarrekin): AURKEZPENA.	10 m.	15 m.
Lan-tresna tailerra: LAN-TRESNAK.	70 m.	90 m.
Bukaera: ONDORIOAK.	10 m.	15 m.
Denetara	90 m.	120 m.

### 1. ZATIA (DENOK ELKARREKIN): AURKEZPENA

Hasiera emateko, saioa girotzeko eta ikasleak zentratzeko unea da (ikus aurreko zatia: helburuak eta edukiak):

- **4.UD**an zer egin duten? Zein jolas? Koadernoak? Zein da gai nagusia? Zer egin duzue? Zer ikasi duzue?
- Zer da **lana**? Zer da **lanbidea**? Zer da **enplegua**? Zer lan ordainduak ezagutzen dituzue? Zer lan ordaindugabeak? Zeintzuk dira beharrezkoak? Zertarako? Zeintzuk dira baloratuenak gure gizartean? Zergatik?
- **Jolas bat, saio bat** egingo dugu lanbideak hobeto ulertzeko: Saioa nolakoa izango den azalduko zaie, izango dituen zatiak, zein talde egingo ditugun, nolako dinamika erabiliko den, taularen eta material osagarrien azalpena, zergatik oraingoan neskak alde batetik eta mutilak bestetik, etabar.

### 2. ZATIA (NESKEN TALDEA ETA MUTILEN TALDEA): LANTRESNAK (LANTRESNEN TAILERRA): 4 JOLAS-FROGA-LAN EZBERDIN

#### Materiala:

- Egurra, kableak, pilak, bonbilak, interruptoreak... guraizeak, bihurkina...
- Egurra, iltzeak, mailua, alicatea, birabarkia(berbikia)... artila, bandak (bisagrak)...
- Muntatzeko eta desmuntatzeko pieza (mekanoa), bihurkinak, torlojuak, azkoinak (tuerkak)...
- Ordenagailua (idazteko makina elektronikoa)...

#### Dinamika:

Bai nesken eta bai mutilen taldean lau azpitalde egin behar dira. Neska-mutil kopurua txikia bada, bi talde edota talde bakarra egingo dugu.

